

3 Euskal Kulturaren tokia hizkuntz politiketan: Debako kultur bizitzaren azterketa

Nekane Goikoetxea

Mondragon UNIBERTSITATEA – HUHEZI, Sorguneak Ikertegia

ngoikoetxea@mondragon.edu

Amaia Zinkunegi

Debako Udaleko Euskara Zerbitzua

euskara@deba.net

Sarrera-data: 2012-05-20 | Onartze-data: 2012-06-20

Laburpena. Sorguneak ikertegiaren bi lanetan oinarritutako gogoeta, eta herri mailako azterketa zehatz baten ondorio nagusiak dira artikulu honetan azalduko direnak. Bi lan horiek Euskal Kulturgintzaren estrategiak garatzeko oinarriak eta Euskarazko kultur sormenaren egitura-sistema Gipuzkoan dira; eta herri mailako azterketa Amaia Zinkunegi teknikariak Nekane Goikoetxearen zuzendaritzapean eginiko Gradu-ondo amaierako Euskal Kulturgintzaren Transmisioko Proiektua. Ikerketa-lan horietan erabilitako analisi-tresnen arabera landutako kasu praktikoa da proiektu hori. Bertan, kultur politika eta hizkuntza politikaren begiradak bateratu ditu egileak kultur bizitza hizkuntza dimentsioaren ikuspegitik aztertuz. • *Hitz-gakoak:* *kulturgintza, hizkuntza-politika, hizkuntza-komunitatea, kultura-politika, herrigintza, euskalgintza.*

Abstract. **The place of Basque Culture in language policies: Study of Deba's cultural life.** This paper reflects on two pieces of work by the Sorguneak research centre, and the main conclusions of a specific piece of local research. The two pieces of work are Bases for developing strategies for Basque Cultural Activity and Structural System for Basque-language cultural creation in Gipuzkoa; and the local study is the post-graduate, end-of-studies Project entitled Basque Cultural Activity Transmission done by the officer Amaia Zinkunegi under the supervision of Nekane Goikoetxea. This project is the practical case developed according to the analytical tools used in these pieces of research. In it, the authors have brought together views on cultural policy and language policy by examining cultural life from the language perspective. • *Key words:* *cultural activity, language policy, speech community, culture policy, society building, Basque cultural activity.*

1. SARRERA

Baztertua ei dago kultur dimentsioa hizkuntz politiketan. Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko *Sorguneak* ikertegiak Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat egin dituen ikerlan biren ondorioen artean ikus liteke hori. Hainbat arrazoiengatik erakunde publikoen eta zibilen hizkuntz politiketatik kanpo geratu da sarri kultur politika.

Artikulu honetan *Sorguneak* ikertegiaren bi lanetan oinarritutako gogoeta eta herri mailako ondorio nagusiak azalduko dira, batetik, eta bestetik, ikerketa-lan horietan erabilitako analisi-tresnen arabera landutako kasu praktikoko bat ezagutuko dugu.

Honako izenburuak dituzten bi ikerlanak *Sorguneak* ikertegiaren web orrian irakur litezke euskarri digitalean:

<http://www.mondragon.edu/eu/ekt/ikerketa/oraingo-ikerketak>.

- Euskal kulturagintzaren estrategiak garatzeko oinarriak.
- Euskarazko kultur sormenaren egitura-sistema Gipuzkoan.

Ikertaldeak *Euskal Kulturagintzaren Transmisioa* izeneko gradu-ondoan du oinarria (<http://www.mondragon.edu/eu/ekt>). 2007tik hona euskalgintzan eta kulturagintzan ari diren pertsonen zuzendutako gradu-ondokoren hiru edizio egin dira HUHEZI fakultatean. 2012ko udazkenean hasiko da laugarrena. Edizioz edizio bertara bildu dira gure hizkuntza-komunitatean euskal kulturaren gainean zer esana duten hainbat aditu zein aritu.

Azken edizioan ikasle izan den Amaia Zinkunegi teknikariak, Nekane Goikoetxearen zuzendaritzapean, egin duen Gradu-ondo Amaierako Proiektua dago lan honen muinean. Bertan saiatu da kultur politika eta hizkuntz politikaren begiradak bateratzen eta emaitza izan da kultur bizitzaren azterketa egitea hizkuntz dimentsioaren ikuspegitik.

Izan ere, biziberritzeko ahaleginean dabilen komunitatearen kulturagintzak desafio propioak ditu: merkatu parametro propioa, masa kritiko propioa, hizkuntza-komunitateari begirako funtzio bereziak e.a. Horregatik behar du arreta publiko berezitua. 700.000 hartzaile (sortzaile) potentzial dituen kulturagintzaren premiek ez dute zer ikusirik 380 miloi dituenarekin. Berezko desafioak dituen minorizazio egoeran dagoen hizkuntza honen kulturagintzak begirada propioa eskatzen du.

Politika publikoak dira desberdintasunak orekatzeko tresnak. Euskal kultura izango bada, berezko politikak beharko ditu, orekatzailerak izango direnak. Euskara menostua bada, euskal kultura ere bai. Hizkuntzaren

Biziberritzeko ahaleginean dabilen komunitatearen kulturagintzak desafio propioak ditu: merkatu parametro propioa, masa kritiko propioa, hizkuntza-komunitateari begirako funtzio bereziak e.a. Horregatik behar du arreta publiko berezitua.

Politika publikoak dira desberdintasunak orekatzeko tresnak. Euskal kultura izango bada, berezko politikak beharko ditu, orekatzailerak izango direnak.

Esan dezakegu kultur dimentsioa bazterreko elementua dela, kasu askotan. Esate baterako, udaletan nola osatzen dugu EBPN kudeatzeko aplikazioan elikadura helburu estrategikoko “kultura” atala?

Erabilerarako aukerak sortu behar ditugu bizitzako esparru guztietan (osasu arloan, hirigintza-politikan, irakaskuntzan, epaitegietan)!, besteak...

aldagaia baztertzen badugu, emaitza desorekatzailea da gure testuinguruan, nahikotasun mailarik gabea.

2. KULTUR POLITIKAK ETA HIZKUNTZ POLITIKAK: BI MUNDU?

I Lan honek oinarri duen Sorguneak ikertegiaren lanetan euskal kultur sistemako 127 ahotsengana jo zen; 200 grabazio ordu izan dira guztira bildutakoak: sortzaileak, kultur eragileak, administrazio teknikeriak eta agintariak, kazetariak, irakasleak, pentsalariak... Analisi-unitate ezberdinak erabili ditugu. Gure solaskide izan diren pertsonen euskarazko kulturaren nondik-norakoaz itaundu genien, *balorazio diakronikoa* egin zezaten galdatu genien; bigarrenik, euskal kultur produktuen *nolakotasunaz* aritu genien; *kultura eta politikaren arteko loturak* ere hizpide izan genituen; baita *kultur politikak* ere; *gizarte-zibil eta administrazioaren arteko harremanez* jardun genuen, *bestetik; gune eta bisio adostuen* beharraz solastu genien; kultur produktuen *merkaturatzeaz*; kultur produktuen *transmisioaz*; *gizarte-aldaketa* eta *identitateaz*; euskal kulturaren *berogailuez*; eta, azkenik, *kultur politiken euskal dimentsioaz*, zein *hizkuntz politiken kultur dimentsioaz*. Azken bi hauek izango dira idazlan honen ardatzak.

Bestetik, lau eskala definitu genituen: Gipuzkoa, eskualdea, herria eta egitasmo zehatzak. Eskala bakoitzak baditu bere irakaspenak euskal kulturaren diagnostiko bati begira. Artikulu honetan horietako hirugarrena, herriarena, hartuko dugu aintzat.

2.1 Zertan da hizkuntz politiken kultur dimentsioa udalerrin mailan? Zergatik arduratu behar dugu kulturaz?

Azterketa sakon baten faltan, gure ikerketan elkarrizketatutako hainbat teknikariren erantzunetan eta taldekideon eskarmentuan oinarrituta esan dezakegu kultur dimentsioa bazterreko elementua dela, kasu askotan. Esate baterako, udaletan nola osatzen dugu EBPN kudeatzeko aplikazioan *elikadura* helburu estrategikoko “kultura” atala?

Bazterreko elementu izateko arrazoi ezberdinak egongo dira horren atzean. Susmoa dugu duela hamarkada batzuk gertuago zeudela bi dimentsioak eta aro ezberdinen premiengatik, arrakasta moduan bizi izan dela bien arteko banaketa; esate baterako, udal lan-sailen egituraketan. Euskararen aldeko hizkuntza politika ezin dugu kulturara errenditu. Una llengua es un mercat! esango digu batek; erabilerarako aukerak sortu behar ditugu bizitzako esparru guztietan (osasu arloan, hirigintza-politikan, irakaskuntzan, epaitegietan)!, besteak...

Horiek horrela izanik ere, kultur dimentsioa bazterrean uztea ez zaigu komeni gure iritziz. Lastoa balitz legez baztertu izan da kultur dimentsioa hizkuntza plangintzan eta, beharbada, lasto horrek badu bazterrean utzi ezin dugun potentzialitatea.

Lastotzat hartu den horrek hizkuntz komunitatea elikatzeke balio dezake; erregai sinbolikoa dela esan ohi dugu Sorguneak ikerketa-taldean. Gutasunaren ispilu izan liteke. Jakina da gutasuna elikatzea bera hautu bat dela. Zer dago GU horren atzean? Hizkuntza, hizkuntza-komunitatea, lurralde bat? Gure herria bezain konplexua da gutasun horren eraikuntza. Konplexutasun horren ondorioz, saihestu egin izan da gaia.

Euskara kosifikatu egin dugu. Gatazkatsua denaren aurrean bizitza kendu diogu. Gazteengan ikus dezakegu ongien hori. Gazte askok kodea badute, hiztunak badira, hizkuntza-komunitateko binkulazioa beste kontu bat da. Hizkuntza espantsiboen logikan pentsa liteke aukera librea dela egokiena; ingelesa ikasten dugunon binkulazioa txikia izan liteke ingeles komunitatearekiko eta ingelesari ez zaio ezer gertatzen baina besterik da munduan gehiago diren hizkuntza minorizatuentzat. Hizkuntza-komunitate erakargarria eraikiko badugu, kulturaren potentzialitatea behar dugu. Gaztelaniaz bizi bagaitezke, zergatik aukeratuko dugu euskaraz bizitzea? Nahi izatea da gaur egun ia aukera bakarra (arnasguneetan ere bai!). Ahal izatea nahikoa izan liteke hizkuntza hegemonikoen kasuan, gure kasuan ez.

Nahimena elikatzea hain garrantzitsua bada zein osagai ekarriko ditugu estrategia mailara? Zer eskaintzen diegu, esate baterako, gazteei ikastetxe, musika eskola, dantza talde, antzerki talde zein kiroldegietan? Zer dakite euskararen historia sozialaz edo zer transmisio bide antolatuko dugu euskal kulturaren gainean? Sorkuntzarako zein aukera dituzte? Sorkuntza horrek hutsetik abiatu behar du ala garrantzitsua da jarraituraz datorkigun kulturagintzaren gainean egitea?

Gaztelaniaren historia soziala lantzea ez da beharrezkoa, interesgarria izan litekeen arren; euskararen historia soziala ezagutzea beharrezkoa da nahimena elikatzeke. Zenbat herritan egin dugu lanketa hori? Euskararena diogunean, euskaldunona esan nahi dugu.

Bestetik, euskararen aldeko agertzeke zer esan behar dugun bada-kigu, gure gazteek badakite. Hortik aurrerako praktika linguistikoa euskarazkoa zein erdarazkoa den, horrek ez du zalantzan jartzen gutasuna, talde etnokulturaleko kide izatea, dirudienez. Neutroa bailitzan jokatzeko dugu. Honezkero galdetuko zenioten zuen buruari, eta zer ikusi du kulturak honetan?

Horiek horrela izanik ere, kultur dimentsioa bazterrean uztea ez zaigu komeni gure iritziz.

Hizkuntza-komunitate erakargarria eraikiko badugu, kulturaren potentzialitatea behar dugu. Gaztelaniaz bizi bagaitezke, zergatik aukeratuko dugu euskaraz bizitzea? Nahi izatea da gaur egun ia aukera bakarra (arnasguneetan ere bai!).

Euskararen historia soziala ezagutzea beharrezkoa da nahimena elikatzeko. Zenbat herritan egin dugu lanketa hori? Euskararena diogunean, euskaldunona esan nahi dugu.

Bada kultura izan liteke emozionalitatearen hizkuntzarekin fusionatzeko bidea. Kosifikatutako hori bizitzarekin lotzekoa, zikintzekoa.

Bada kultura izan liteke emozionalitatea hizkuntzarekin fusionatzeko bidea. Kosifikatutako hori bizitzarekin lotzekoa, zikintzekoa. Kultur arloan mundu bat dugu anitza den hizkuntza-komunitateak, anitzak diren hiztunek, beren sormena garatzeko.

Mundu horren egoera zertan da, ordea? Zertan dira euskaraz lan egiten duten idazle, antzerkilari, bertsolari, musikari, dantzari, margolari eta abarrak? Eta kultur-industria? Nolako sustapen politikak daude abian? Zein kultur eredu (gizarte-eredu) ari dira/gara sustatzen? Nora doaz sosa, elite-kulturara, masa-kulturara, herri-kulturara? Zer komeni zaigu ikuspegi linguistikotik? Zertan ari garen badakigu? Galdera horien erantzunek eman diezagukete garenaren neurria. Hizkuntzaren auzia ez dago hortik kanpo. Are, hizkuntzaren auzia balio positiboekin lotzea nahi dugu, elkartasunarekin, justiziarekin, ongizatearekin, iraunkortasunarekin; hobeto bizitzen laguntzen digutenekin. Menostutako hizkuntza-komunitateok baditugu indar-gune batzuk arlo honetan.

Bestetik, kulturaren eragin soziolinguistikoa nabarmen geratzen dira kulturak hegemonia kontzeptuarekin, boterearekin duen harremanari erreparatzen badiogu. Kultura gizartearen egituratzeko tresna ere bada, dimentsio politiko handia duena eta, ondorioz, hizkuntza errealitate bat naturalizatzen duena. Utz dezakegu hizkuntza politika hortik kanpo? Botere/Eragin paradigmak asko dugu jokoan. Gizarte-eredu jakin bat eraikitze erabili ohi denez kultura, hizkuntzaren soziologiak badu horretaz zer esana.

Bukatzeko hitzunen planoari erreparatuko genioke. Minorizatutako hizkuntza duenak, herri minorizatutako hiztunak, baditu min batzuk. Kulturak ekar diezaiokete poza, indarra, ezagutza, sormena. Horrek merezi du. Esperientzia horiek kristalizatzen dute izateko gogoak.

2.2 Zer esan genezake kultur politiken euskal dimentsioaz?

Kultur politikak euskaratik pasatzen al dira? Euskaratik pentsatzen al dira kultur politikak? Euskara sektore bat al da? Adjektibo bat, edota sustantiboa da Kultura den adina?

Kultur politiken eta euskal dimentsioaren arteko harremana argitzeke dagoen auzia da. Administrazio askotan (denetan ez esateagatik) kultur politikak, kultura sailak, "hizkuntzarik gabe" agertu izan zaizkigu. Kultura da garrantzitsua, kultura da edukia. Baina non geratzen da hizkuntza? Izenari dagokionean ez da hizkuntzarik ageri, praktiketan, hainbatetan bai, baina ez beti. Honela, ez dugu aurkitu euskal kulturaren premietan oinarritutako kultur analisi sakon batetik formulatutako kultur politikarik gure erakundeetan. Aurkitu ditugu, ordea, sustapen neurri partzialak.

Aitortu behar da lurralde mailako administrazioan eta herrietakoan, oro har Gipuzkoan, kultura arduradunen aldetik euskal dimentsioa kontuan hartzen dela, baina inon ez dagoela idatziz jasota horrela behar duenik izan. Beraz, Aldundiko eta Udaletako teknikari eta arduradunen euskararekiko sentsibilitatearen (edo sentsibilitate ezaren) mende geratzen da euskarazko kulturaren aldeko politikak praktikan jartzea. Nola-bait tazituki edota inertziaz onartua dago praktika hori, baina zer gerta liteke eragile horiek aldatzen badira? Are, zer gerta liteke mahaigaineratuko balitz arazo hori? Non eta nola geratzen da bermatua euskal kulturaren aldeko praktika hori?

Aldundian eta hainbat udaletan, ez guztietan, esan dezagun, kultura egiten dela, eta euskaraz dena balioesten dela, diru-laguntzetan demagun, emakumeen berdintasunaren aldeko lanak balioesten diren modu berean. Ondoan, euskararen normalizaziorako sail edo zuzendaritzatik kultur ekimenak ere lagundu eta bideratzen dira. Sarritan euskara sailak dirudi euskal kulturaren gunea, eta ez kultura sailak berak. Dibortzio horrek bi irakurketa maltzur sor ditzake: bata, euskaraz sortzen den kultura oro subentzionatua da, lagundua, dirutza gastatzen da horretan, beste hizkuntzetan ez bezala. Bigarrena, euskaraz sortzen dena kultura txikia da, ez benetako kultura. Gaztelerazkoa aldiz laguntza gabekoa dirudi, eta ez da egia, eta gainera badirudi benetako kultura dela kultura sailetik gestionatzen den heinean. Euskarazko kultur proposamenak euskaragintza badira, berdin esan daiteke gaztelerazko kultur proposamenak gazteleragintza direla, sortu eragile zibilek edo sortu eta lagundu administrazioek. Hizkuntzarik gabeko kulturarik existitzen al da? Hizkuntzarik gabeko kultura ez ote da ia gehienetan gaztelerazko kultura? Hizkuntza minorizatu baten beharrak ase al ditzake hizkuntzak zentraltasunik ez duen politika batek?

Euskararen beraren premien barnetik analisisa egitea beharrezkoa da euskara eta euskal kultura jokoan dagoen eremu guztietan. Beste era batera esanda, euskaldun izateko nahimena elikatuko duen kultur politika behar dugu. Gure beharretatik formulatu behar dugu bisio bat, etorkizunerako ikuspegia. Berezitua eta lehentasunezkoa izan beharko luke euskal dimentsio horrek, eta horrenbestez kultura sailetik egin politikak, eta ez euskara sailetik.

Lekuan lekuko diagnostikoak, ordea, auziaren konplexutasuna erakusten digu. Zein lankidetzat modu dago bi lan-sailen artean? Nondik eta nola arautu liteke euskal kulturaren aldeko kultur politika eraginkorra? Nola sustatu liteke euskal kulturaren aldeko eragiletza herritarra? Zein da egoera euskara-elkarteetan, kultur taldeetan?

Hizkuntzaren auzia balio positiboekin lotzea nahi dugu, elkartasunarekin, justiziarekin, ongizatearekin, iraunkortasunarekin; hobeto bizitzen laguntzen ditugunekin.

Kultura gizartea egituratzeko tresna ere bada, dimentsio politiko handia duena eta, ondorioz, hizkuntza errealitate bat naturalizatzen duena.

Minorizatutako hizkuntza duenak, herri minorizatuko hiztunak, baditu min batzuk. Kulturak ekar diezaioke poza, indarra, ezagutza, sormena.

Administrazio askotan (denetan ez esateagatik) kultur politikak, kultura sailak, "hizkuntzarik gabe" agertu izan zaizkigu. Kultura da garrantzitsua, kultura da edukia. Baina non geratzen da hizkuntza?

3. FOKA GAITEZEN HERRI MAILAN. GIPUZKOAKO DIAGNOSTIKOTIK EKARRITAKO GAKOAK

I

Hasteko, honako galderak pertinentesak izan litezke:

- Nola bideratzen da kultur politikaren antolaketa? Zein eragile daude? Nolakoak dira?
- Nolako kultur politika egiten da? Zein kultur(gizarte) eredu sustatzen da? Musika-eskolan? Eskoletan? Kultur eskaintzan? Kultur elkarteetan? Euskaltegian? Jaietan?
- Zein indar-gune ditu herri mailan euskaldunon komunitateak? Nondik edaten du komunitate honek? Zein ezaugarri ditu komunitate honek?
- Nolako lankidetza dago euskara eta kultura sailen artean?
- Zertan dira gure kultur taldeak? Badute egiten duten ekarpen linguistikoen gaineko kontzientziarik? Nola artikulatzen dute transmisioa? Nondik elikatzen dira? Zein baldintzatan egiten dute lan?

Gipuzkoako ikerlanetik azpimarra genitzakeen herri mailako gakoak azalduko ditugu jarraian. Helburua izango da, Debako kasuan sakonduko diren alderdiei marko orokorra ezartzea:

Hasteko esan dezagun lurralde mailan jasotako ideiak herri mailan agertzen direla berdin-berdin. Esate baterako, kultur bizitza aldatzen joan dela hamarkadaz hamarkada. Kultur bizitza aberatsa badugu ere, gizarte aldaketak tarteko, taldetasun era honek garrantzia galdu izana azpimarratzen da. Informatzaileen iritziz, pertsona gutxi batzuen esfortzu handiz bizi dira taldeak, errelebo falta nabarmena da eta neke puntua sumatzen da taldetan. Kezka orokortua da gazteen falta.

Bigarrenik, kultura eta kontsumoaren arteko binomioak indar handia hartu du. Joera orokorra da kultur sortzaile izaera gutxi batzuen esku geratzen dela eta gehiengoa kultur kontsumitzaile gisa irudikatzen dela. Eragile ezberdinen artean erostun/saltzaile dinamika indartu egin da eta bestelako truke/auzolanak baztertzen joan dira.

Hirugarrenik, herrietan, lurralde mailan bezala, eragile ezberdinen arteko artikulazio falta sumatzen da. Ez dago estrategia bateraturik eta gainjartzeak gertatzen dira sarri. Oso asmo gutxi konpartitzen dira eta kultur komunitate senik ez da nabaritzen. Nor bereaz arduratzen da nagusiki.

Eskala ezberdinen artean parekotasunak dauden arren, herri mailako kultur bizitzak baditu hainbat indar-gune. Esate baterako, joera orokorra

bada kultur produktuak, ez prozesuak, duela lehentasuna; alegia, emandaldi edo azken ekoizpenak duela garrantzia handiena eta ez prestatze-sortze prozesuak. Herrietan ikus genezake prozesuak, oraindik orain, garrantzia handiagoa izan ohi duela. Honela, entseguak egitea, jarduera bera dela taldearen ardatz, eta ez beti, publikoari begirako emanaldiak eta, ondorioz, reditu ekonomikoak (diru-trukea salmenta zein diru-laguntza bidez).

Honekin lotuta, kultur talde handietan subentzioek sekulako pisua dute; aldiz, herrietako elkarte askotan, autogestio/ autofinantzaketa eredu garrantzitsua izaten jarraitzen du eta lan bolondresak zentralitate handia du.

Azkenik, badirudi publikoaren erantzuna nahiko ongi baloratzen dela talde amateurren kasuan, ausardia, lana eta neurriko kalitatea baloratzen baita; aldiz, talde profesionalen kasuan errentagarritasun ekonomikoa izan ohi da sarritan kalitate-parametro nagusia.

Ikuspegi ekonomizistak, ordea, baditu bestelako kalteak ere: herrietako elkarteek, nahiko orokorra den kritika egiten diote administrazioari, bertatik inplementatzen diren kultur politikak profesionala eta herriz gaindikoa hobesten baitute eta herrietako taldeak lehenengo horien “kopia txartzat” hartzen baitituzte. Merkatuaren logikaren gatibu ikusten dituzte udal kultur sailak gero eta gehiago, publiko kopuruari eta, finean, errentagarritasun ekonomikoari gero eta gehiago erreparatzen. Taldeen arabera, kultur teknikaria programatzaile bihurtu da azken urteetan eta bere lehentasunak aldatu egin dira. Herriko taldeen sustapen lanak garrantzia galdu du. Oso asmo gutxi konpartitzen direla diote taldeek eta udalarekiko harremana asko burokratizatu dela dirulaguntzen prozedurei-eta dagokienez.

Euskararen gaira gatzela esan genezake kasu askotan herrigintzan dabilzan kultur taldeek herriko batz besteko indize soziolinguistikoa baino maila hobea ematen dutela; alegia, euskaldun diren batz beste-koen kopurua handiagoa dela taldekideen kasuan. Nolabait esan liteke euskal komunitateak mantendu duela nola-halako aktibotasuna. Hala ere, aktibo horri ez zaio formarik eman egundaino. Oso ahula da formazioak eta egiten dutenaren gaineko gogoetak duen pisua eta artikulazio maila eragile guztiengan. Eta horrenbestez, inertziek, errepikapenek eta folklorizazioak hartzen duten garrantzia handia da.

Idea orokor hauen ostean ikus dezagun kasu zehatz bat sakontasun handiagoarekin:

Sarritan euskara sailak dirudi euskal kulturaren gunea, eta ez kultura sailak berak. Dibortzio horrek bi irakurketa maltzur sort ditzake: bata, euskaraz sortzen den kultura oro subentzionatua da, lagundua, dirutza gastatzen da horretan, beste hizkuntzetan ez bezala. Bigarrena, euskaraz sortzen dena kultura txikia da, ez benetako kultura.

Kultura eta kontsumoaren arteko binomioak indar handia hartu du. Joera orokorra da kultur sortzaile izaera gutxi batzuen esku geratzen dela eta gehiengoa kultur kontsumitzaile gisa irudikatzen dela.

Herrietan, lurralde mailan bezala, eragile ezberdinen arteko artikulazio falta sumatzen da. Ez dago estrategia bateraturik eta gainjartzeak gertatzen dira sarri. Oso asmo gutxi konpartitzen dira eta kultur komunitate senik ez da nabaritzen.

4. DEBAKO KULTUR BIZITZAREN AZTERKETA

I Deban dauden kultur talde eta kolektiboek bizi duten egoera ezagutzeko egindako diagnostikotik ateratako ondorioak biltzen ahalegindu gara hurrengo atalean. Jarduera aurrera eramateko dituzten aukerak, zailtasunak, gabeziak... detektatzen saiatu gara. Batzuek begi bistakoak ziren baina inon jaso gabeak. Beste batzuk azterketa egin ahala, nabarmentzen joan dira. Horiek guztiak jasotzen ahalegindu gara eta ahalegindu gara herria biziarazteko ez ezik, nahi izanez gero, euskal komunitatea artikulatzeko eta kohesionatzeko ere, daukaten potentzialaz eta indarrak kontziente egiten herriko eragile guztiak. Horregatik, kultur jarduera batek aurrera egiteko beharrezkoak dituen antolaketa eta baliabide desberdinak aztertzeaz gain, arreta berezia eskaini diogu euskal kulturak eta euskarak berak taldeetan duten tokia.

Helburu orokorra, beraz, herriko kultur taldeen gaineko argazki bat egitea izan da baina baita taldeen artean harremanak bideratzeko empatiazko jarrera bat bultzatzea ere, besteek egiten duten horri zabaltasunez eta aurreiritzirik gabe begiratu ahal izateko. Horrekin batera euskalgintza ardatz izango duen kultur politika bat diseinatzen hasteko pista batzuk ematea ere izan du helburu.

Diagnostikorako, Sorguneak ikertegiak Gipuzkoako kultur bizitzaren azterketa kualitatiboa egiteko erabili zuen lan-eskema ekarri dugu, gutxi gora-behera, herrira, eskema horri hainbat datu kuantitatibo erantsiz; hau da, batetik, elkarrizketa sakonak egin dizkiegu taldeetako zuzendari edota ordezkarietara eta, bestetik, datu eta material zehatzak biltzen saiatu gara (taldekide kopurua, adina, euskararen ezagutza, diru laguntzen zenbatekoa, emanaldi kopurua... baina baita emanaldi horietako programak, kartelak, prentsa oharrak... eta horrelakoak ere).

4.1 Testuingurua

Deba herri dinamikoa da oso. Kultur talde ugari dago eta mugimendu handia sortzen da horien inguruan. Herriak, gainera, oso ondo erantzuten du haiek egindako proposamenen aurrean: izan toki itxietan zein irekietan, bertako taldeek ikus-entzule ugari biltzen dute euren emanaldietan. Festa eta jai giroan ederki mugitzen dakien herria izanik, beti prest agertzen dira ohiko jardueretatik aparte, proposatutako horrelako ekimenetan parte hartzeko eta, beraz, herria eta herritarrak dantzan jartzeko.

Diagnostikoan Debako erdigunean dauzkagun kultur taldeak aztertzera mugatu gara. Hau da, Debako lur eremuan aurkitzen diren auzo-herrietako (Itziar, Lastur, Endoia...) kultur mugimendua azterketa ho-

netatik kanpo geratu da. Jarduera konkretu batean dabilzan taldeak aztertu dira: abesbatza, banda, dantza taldea, txistulari taldea (laurak musika patronatuaren barruan daudenak), antzerki taldea, pintura elkarteak, eta erraldoi eta buruhandien konpartsa. Maila orokorragoan aritzen diren eta, beraz, kultur eremu guztietan jarduten duten hiru elkarte handiak (euskara elkarteak, kultur elkarteak eta gaztetxea) azterketatik kanpo geratu dira¹ eta, hori, lan honen muga modura aitortu behar da, eremu horien arteko koordinazio-lanetan neurri bateko edo besteko gidaritzak hartzeko moduko elkarteak izan litezke eta. Bestalde, ikuspegi osatuago bat izate aldera, Udaleko kultur dinamizatzailearen eta musika eskolako zuzendariaren ikuspegia jasotzen ere saiatu gara.

Erdigunera etorrira, beraz, 4.000 biztanle inguruko eremuaz ari gara. 0-16 urte bitarteko irakaskuntza eskaintzen da bertan eta, adin horretatik aurrera eta ikas prozesua amaitu arte, gazteak herritik kanpora sozializatzen dira aste barruan. Asteburuetan ateratzen dira kalera, nahiz eta gazte lokalak (kaletik, herritik, jendearengandik... aparte) gero eta ugariagoak diren. Hala ere, asteburuetako iluntze eta eguerdietako kale giroa (txikiteoari esker) oraindik ere mantentzen dela esango genuke adin tarte nagusiagoetan.

Euskarari dagokionez, Deba udalerrri euskalduna da, UEMAn sartuta dagoena. EUSTATen datuen arabera, euskal elebidunen kopurua %73,35ekoa zen 2006an eta elebidun hartzaileena %15,59koa. Debako kaskoko datuetara etorriz, %63,78k euskara zuen lehen hizkuntza eta %5,85ek euskara eta gaztelania. Etxeko erabilerari dagokionez, ordea, datuak jaitsi egiten ziren: %46,32 ziren etxean euskaraz hitz egiten zutenak eta %19,36 euskaraz zein gaztelaniaz egiten zutenak.

Hala ere ez dira, Euskal Herriari begira, datu kaxkarrak. Kaleko erabilera jasotzeko egin diren neurketetan, goranzko joera atzematen da kaskoan eta nabarmentzekoa da, gainera, batez ere, gazte eta helduengan atzematen dela igoera hori. Haurren multzoak berdintsu jarraitzen duen arren puntu bat behera egin du eta, beraz, hurrengo urteetan gertatzen denaren gainean egon beharko da.

Ikuspegi ekonomizistak, ordea, baditu bestelako kalteak ere: herrietako elkarteek, nahiko orokorra den kritika egiten diote administrazioari, bertatik inplementatzen diren kultur politiketara profesionala eta herriz gaindikoa hobesten baitute eta herrietako taldeak lehenengo horien "kopia txartzat" hartzen baitituzte.

Helburu	KALE NEURKETAK (Debako erdiguneko euskararen erabilera)					
		HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ZAHARRAK	GUZTIRA
orokorra, beraz, herriko kultur taldeen gaineko argazki bat egitea izan da baina baita taldeen artean harremanak bideratzeko enpatiazko jarrera bat bultzatzea ere, besteek egiten duten horri zabaltasunez eta aurreiritzirik gabe begiratu ahal izateko. Horrekin batera euskalgintza ardatz izango duen kultur politika bat diseinatzen hasteko pista batzuk ematea ere izan du helburu.	1993	%62	%28,89	%26	%30,5	%30,5
	2002	%55,89	%36,63	%25,94	%34,58	%34,58
	2006	%84,21	%42,70	%36	%38,35	%48,77
	2010	%83,29	%46,62	%45,80	%33,16	%52,22

(Iturria: Debako Udala, Euskara zerbitzua)

HAURRA: 0-14 urte

GAZTEAK: 15-24 urte

HELDUAK: 25-65 urte

ZAHARRA; 65etik gora

Datu horiek ikusita balirudike, Deban, euskal kulturaren eremuan ausart jokatzeko nahikoa indar eta aukera dagoela. Esan behar da, ordea, bai herrian bertan, bai kanpoan, oro har, herri erdaldun modura perzibitzen dela eta aurreiritzi hori euskalgintzan aurrera egiteko daukagun ahulguneetako bat izan daitekeela. Nolanahi ere, datuak eskuan, euskal kulturaren aldeko politika aktiboa egiteko plaza egokia izan daiteke, herriko kultur eragileen partetik norabide horretan ere aritzeko prestutasuna eskuratzen bada. Erronka horixe da, hain zuzen ere. Deban ditugun kultur talde eta eragileek euskaldunon komunitatea indartzeko eta batzeko aitzindarritza eta lidergoa beren gain hartzea.

Diagnostikoaren helburuak eta testuingurua ipinita, goazen bada, diagnostikoan aztertu diren analisi unitate bakoitzean ateratako ondorioak azaltzera:

4.2 Jardueraren transmisioa: belaunaldi berriak badatoz?

Kultur mugimendu indartsu batek herria biziartzeko gaitasuna du, herritarrek kohesionatzeko eta pozaren inguruan biltzeko ahalmena eta pertenezia eta harrotasun sentimendua eraikitzekoa. Herrigintzaren ikuspegitik, beraz, herriko kultur taldeak osasuntsu mantentzea komeni da. Osasuntsu egoteak, ordea, jarraipena ziurtatua izatea esan nahi du besteak beste; gazteen erreleborik gabe, jardueraren jarraipena zailagoa eta zalantzazkoagoa izango da. Erreleboan pentsatzea, beraz, etorkizuneari pentsatzea da.

Baina nola daude Debako taldeak jardueraren transmisioari dago-kionez? Bada, eskolak antolatu izan dituzte, horretarako, kultur talde gehientsuenek. Eskolek erreleborako aukerak irekitzen dituzte, dudarik gabe, baina ez dute %100ean hala gertatuko denik bermatzen.

1. Gora-beherak gora-behera, transmisioa ondoen artikulatuta daukaten taldeak banda eta txistulari taldea dira Deban. Biek dituzte ezaugarri komunak: eskola eta taldearen arteko lotura sendoa da (eskolak ematen dituen irakaslea taldeko partaide da) eta ikasle eta taldeko partaideen arteko adin tartea egokia. Esan genezake, beraz, hiru katebegiak (eskola, eskola eta taldearen arteko lotura eta adin-tartea) egokiak direnean errazago ziurtatzen dela jarduera horren erreleboa.

KULTUR TALDEA	ESKOLA	ESKOLA-TALDEA LOTURA	ESKOLA-TALDEA ADINTARTEA
Aitzuri abesbatza	Bai	Ez	Handiegia
Debako banda	Bai	Bai	Egokia
Goaz antzerki taldea	Ez	–	–
Gure Kai dantza taldea	Bai	Ez	Egokia
Haitz Haundi pintura	Bai	Bai	Handiegia
Kalez kale txistulariak	Bai	Bai	Egokia
Tarinak erraldoiak	Ez	–	–

2. Aitzitik, katebegietako batek huts egiten duenean arazoak sortzen dira. Batzuk beharrezkoa dute eskola eta taldearen arteko loturak lantzeaz gain, adintartea leunduko duen gazteen talde bat eratzea. Beste batzuk, eskola eta taldearen arteko loturak birpentsatzea: aukeretako bat izan daiteke eredu mistoa (eskolan bi saio ematea: bat irakaslearekin eta bestea taldearekin) edo, beste bat, antolakuntza osoa (eskolak barne) taldeak bere gain hartzea. Azkenik, beste batzuk, DBH eta hortik aurreragoko neska-mutilak taldean mantentzeko, estrategia berri eta originalak pentsatu eta planteatzea: teknologia berrien erabilpena eta beste.

3. Transmisioa ziurtatzeko lan sistematikorik egin ez den taldeetan (hau da, eskola edo ikastarorik, modu jarraitu batean behintzat, antolatu ez denetan) ez dago momentu honetan egitura minimorik horri aurre hartzeko eta, beraz, egun, kinka larrian egon daitezke. Beste taldeak bezalaxe, herriarentzako garrantzitsuak eta bizigarriak direnez, talde horien jarraipena ziurtatuko duten estrategia eta bideak pentsatzea ezinbestekoa eta lehentasunezkoa da: ikastaroak, eskolak, jarduera kalera ateratzeko moduak, maiztasunak, elkarlanak...

Hasieran esan dugu, ordea, eskolak erreleborako bide erraz eta egokienak badira ere, ez dutela %100ean hala izango denik bermatzen.

Esan behar da, ordea, bai herrian bertan, bai kanpoan, oro har, herri erdaldun modura perzibitzen dela eta aurreiritzi hori euskalgintzan aurrera egiteko daukagun ahulguneetako bat izan daitekeela. Nolanahi ere, datuak eskuan, euskal kulturaren aldeko politika aktiboa egiteko plaza egokia izan daiteke, herriko kultur eragileen partetik norabide horretan ere aritzeko prestutasuna eskuratzen bada.

Esan genezake, beraz, hiru katebegiak (eskola, eskola eta taldearen arteko lotura eta adintartea) egokiak direnean errazago ziurtatzen dela jarduera horren erreleboa.

2. Beste batzuk, DBH eta hortik aurreragoko neska-mutilak taldean mantentzeko, estrategia berri eta originalak pentsatu eta planteatzea: teknologia berrien erabilpena eta beste.

Badira elkarrizketetan eragileengandik jaso ditugun beste zailtasun batzuk ere:

a) Musika patronatuan dauden taldeetako eragile gehienak kritikiko samar agertzen dira musika eskolaren funtzionamenduari. Musika eskolaren helburua musika taldeak eta dantza taldea hornitzea izan behar duela diote eta, askotan, taldeen beharrak kontuan hartu gabe jarduten duela aurpegiatzen. Hona hemen jaso ditugun zailtasun horietako batzuk:

– Musika eskolako ikasketa plana dela eta, gehienek, ez dela egokia uste dute. Taldeentzat kaltegarriak diren bateraezintasunak eta derrigortasunak ezartzen ei ditu.

– Zaletasuna / Konpetentzia binomioa dela eta, jardueren araber, bi ikuspegi kontrajarri nabarmendu dira: batzuen ustez, musika eskolak ahalik eta maila akademiko onena ziurtatu behar luke, ikasleak, lehenbailehen, taldean aritzeko adinako gaitasuna izan dezan. Beste batzuk, ordea, juxtu alderantzizko iritzia dute: teknikari zaletasunari baino garrantzia gehiago ematen zaiola, hain zuzen ere. Kultura dinamizatzaileak ere eskolaz kanpoko jardueri buruzko ikuspegia aldatu egin dela diosku, aisialdiarekin lotuagoa: “gurasoek, eta gizarteak oro har, ondo pasatzea eta zaletasuna piztea dute helburu eta ez dute eskolako presiorik nahi euren seme-alabentzako”. Horrek guztiak erakusten du, gure ustez, eragileen arteko komunikazioa ez dela behar adinakoa eta errealtatearen irakurketa oso desberdina egiten dutela batzuk eta besteek. Nabarmena da, beraz, ikasketa plan adostu baterako eztabaida behar beharrezkoa dela: errealtatearen gaineko diagnostiko komun batera iristeko, helburuak markatzeko, bitartekoak adosteko eta emaitzak ebaluatzeko.

– Zentzu horretan, eragileek, musika eskolako edo musika patronatuko zuzendaritzaren gidaritzan falta nabarmendu dute eta gaineratu dute, eskolaz gain, Udalak berak ere, ez duela gidaritzan lan horretan hartu beharko lukeen papera hartu izan.

– Solaskidetzari dagokionez, gehienek uste dute taldeetako ordezkariak ez zaiela, musika eskolaren aldetik, interlokutorretzarik aitortzen.

b) Aisialdi eskaintza zabala da; gero eta zabalagoa. Neska-mutilak, oro har, nahiago dituzte mugimenduzko ekintzak, isiltasuna,

kontzentrazioa eta saiakera etengabea eskatzen duten jarduerak baino. Komeni da jakitea, DBHko ikasleen kasuan, neska-mutil gehien mugitzen duten eskolaz kanpoko jarduerak futbola eta aerobika direla eta, 3. eta 4. mailan, hizkuntzek (ingelesak nagusiki baina baita frantsesak ere) gain hartzen dietela; horrela erakusten dute haiei egindako galdetegitik ateratako emaitzek.

4. Adina: 16 urtetik gora zailagoa da Deba bezalako herri batean edozein jardueratan jarraitzea (are gehiago, hastea), gazteek kanpora irten behar izaten dute-eta ikastera. Gerora, Unibertsitate garaian, aste osoa pasatzen dute herritik kanpo; badira lan munduan sartzen direnak ere. Asko kostatzen da, orduan, asteburuetarako zerbaiten inguruan konprometitzea. Behin jarduera lagatzen bada, gainera, itzultzea zaila izaten dela diote elkarrizketatuek. Autegestiorako gogoia ere garai honetan pizten da, eraturako taldeetatik aparte ibiltzekoa... Zentzu horretan, 12-13 urtekoak, Lehen Hezkuntza bukatu eta Bigarreneko jauzi horretan, ondo zaintzea komeni da nagusien taldearekin batera aritzeko ahalik eta zubi gehien eraikiz: besteak beste, nerabeek hain beharrezkoa duten autoafirmazioa, nagusien munduan toki bat aurkitzeko premia... errazago eskuratuko dutelako. Gainera, taldean lauzpabost urte egiteko aukera izanda, gero ere jarraitzea (Unibertsitate garaian edo handik bueltan, behar bada) errazago izan daiteke.

Beraz, hemen badira hainbat faktore kontuan edukitzeko. Horiek guztiak ikuspegi zabalago bat izatera behartzen gaituzte, globalizazioak, kanpoko inputek, gizarte ereduak... daukaten eragina kontuan izatera, hain zuzen ere. Kontziente izan behar dugu adin tarte horretan zailtasunak bereziki zailak direla (zilegi bazaigu horrela esatea); gure esku ez dauden faktoreak sartzen direlako tartean.

Taldean jarraipenari begira, beraz, erronka, gazteak taldeetan mantentzea edo erakartzea eta, zenbait kasutan (are zailago, seguru asko), gazte taldea bera eratzea izango da (arestian aipatutako taldekide eta ikasleen arteko adin tarte leuntze aldera). Horrek bisio batekin lan egitera eraman beharko gintuzke, bai eskolak bai taldeak, behar-beharrezkoa baitute taldeek erreleboa hilko ez badira; gazteei kultur jarduera horiek erakargarri egiteko moduetan pentsatzen hasi beharko genuke: ikasketa planak malgutu, adierazpideen formatu desberdinak erabili, jarduera alai eta bizigarriak aurkeztu, umoretsuak, irudimentsuak, gazteak ibiltzen diren tokietara hurbildu...

**12-13 urtekoak,
Lehen Hezkuntza
bukatu eta
Bigarreneko
jauzi horretan,
ondo zaintzea
komeni da
nagusien
taldearekin
batera aritzeko
ahalik eta zubi
gehienez eraikiz:
besteak beste,
nerabeek hain
beharrezkoa
duten
autoafirmazioa,
nagusien
munduan toki
bat aurkitzeko
premia,...
errazago
eskuratuko
dutelako.**

Horrek bisio batekin lan egitera eraman beharko gintuzke, bai eskolak bai taldeak, beharrezkoa baitute taldeek erreleboa hilko ez badira; gazteei kultur jarduera horiek erakargarri egiteko moduetan pentsatzen hasi beharko genuke.

4.3 Euskal kulturaren transmisioa

Egindako elkarrizketetatik ondoriozta daiteke Debako kultura taldeek (Goaz antzerki taldeak izan ezik) ez dutela, kontzienteki bederen, euskal kulturaren gaineko jakintzarik ia transmititu izan. Jarduera (izan kantu bat, izan dantza bat...) transmititzen da baina ez jarduera horrek atzetik dakarren sinbologia, esanahia, testuingurua...

Euskaldunok kultura propio bat garatu dugun heinean, esan genezake, artearen espresibide guztietan badirela geure-geureak diren ezau-garriak, egiteko moduak, ulertzeko manerak... eta horien bitartez *ideia eta balio* konkretu batzuk transmititzen direla.

Baina zer dakigu, egun, horretaz guzti horretaz? 2 urtetik 18 urtera bitartean, zer da euskal kulturari buruz transmititu zaiguna? Estrukturalki ze bide jartzen dira horretarako? Hezkuntza arautuaz aparte (hor ere zenbateraino egiten den aztertzen jarri gabe), badute bestelako eragileek (herrietako kultur taldeek, kasu) ekarpenik egiterik bide horretan?

Esango genuke baietz, hizkuntza komunitatearen zentzua elikatuko lukeela jakintza horren transmisioak. Izan zirenen jarraiduran kokatzen lagunduko liguke eta, beraz, talde edo komunitate sentimendua sendotzen. "Euskal hiztunak jantzi egin behar dira lehenbizi komunitatea trinkotzeko eta, horretarako, kultur transmisioa estrategikoa da" (*Xamar, IV. Sozioilinguistika jardunaldia. Miramon zientzia gunea. Donostia, 2011*).

Gure ustez, ordea, ideia hori ez da gehiegi zabaldu izan, orain arte, Euskal Herrian (eta Deba ez da sabuespena). Lehenengo, beraz, behar horren inguruko kontzientziazio lana egin beharko litzateke taldeetan, ezagutza horrek taldeari zer nolako ekarpen eta onurak egin diezazkiokeen ikus dezaten. Kultur transmisioan izan dugun etenari erremedioa jartzen hasteko, jakintza horren transmisioaz arduratuko den kide bat izendatzea izan daiteke hurrengo urratsa eta arduradun horiei beharrezko prestakuntza eskaintzea ondorengoa: formaziorako eta hausnarketarako lekuak eratuz, bitartekoak aztertuz, internetak ematen dituen aukerak baliatuz, foroak edo bilguneak antolatuz... Horrek guztiak dedikazio bat eskatzen du, jakina; eta, eguneroko jardunean kideek ematen dituzten orduak ikusita, zail samarra ere izan daiteke inor horrelakoetan sartzea. Energia hortik sortzen da, ordea. Zaletasuna sustatzeko, harra sorrarazteko, taldea elikatzeko eta berotzeko... *zertan ari gara?*-ri erantzuten hastea eta erantzun horiek zaletasun beraren inguruan dabilzan beste taldekideekin konpartitzea eraginkorra eta indarberritzailea izan daiteke oso. Ekintzen zurrumbilotik irten eta pentsatzeko, hausnartzeko, konpartitzeko... momentuak eta espazioak bilatu beharko genituzke-lakoan gaude. Moduetan asmatzea da, behar bada, gakoa. Mondragon

Unibertsitatea, Udako Euskal Unibertsitatea edota Topagunea bera izan daitezke, beste batzuren artean, jakintza hori bildu, pilatu, antolatu eta eragileei zabaltzeko moduko erakundeak, guk uste.

Deban 175 lagun inguru biltzen dira zaletasun desberdinen inguruan. 175, astean 4-6 orduz lanean, ahaleginean. Euren barruak betetzeko baina baita herritarrona goxatzeko ere. Zer litzateke herria kultur talde horiek gabe? Aitortzen da talde horiek herria biziarazteko egiten duten lana? Eta kontziente gara, bai herritarrak, bai erakundeak, baita taldekideak eurak ere, jarduera publiko bat egiten den heinean, kultura eta hizkuntza zehatz bat transmititzen direla? Zer nolako kultura eta hizkuntza eredu nahi dugu herriratu? Pentsatu dugu?

175 lagun, esan dugu, kultura eta hizkuntza komunitate bat elikatzen eta berregiten. Horietatik %96k, euskaraz ulertzen du eta hitz egiten badaki; eta gehien-gehienak idazten eta irakurtzen ere bai. Euskaldun jendea da, bada, oro har, kultur taldeetan dabilena. Debako batez bestekoa baino euskaldun gehiago dagoen arren, gehienek ez dute euren jardueran euskal/erdal dimentsioa lantzen ari direnaren kontzientziarik.

“Euskal Herrian aspaldikoa da hizkuntzen arteko ukipena. Euskara beti izan da hemen eta aspalditxo dira hemen gaztelania eta frantsesa ere. Oraintsu ingelesa bera ere berebiziko indarra ari da hartzen. Eta etorkin heldu berriekin batera, beste makina bat hizkuntza eta kultura heldu zaizkigu. Joko-zelai horretan ez da neutroa zein hizkuntzatan jardun. Edozer egiten dugula, hizkuntza bat(zuk) ari gara aupatzen eta, orobat, beste hizkuntza bat(zuk) albora uzten. Horrenbestez, eleaniztasuna lagun dugula, oso garrantzitsua da ohartzea gaztelaniak, frantsesak eta ingelesak badutela munduan zehar nork indarra eman; euskarak, ordea, inon izatekotan, hementxe bakarrik dauka sortzeko eta birsortzeko aukera. (Euskal kulturagintzaren estrategiak garatzeko oinarriak. Sorguneak ikertegia. 4. orr.)”.

Deban hiru dira euskara eta euskal kultura erdigunean jarri duten taldeak. Antzerki taldea, euskal dantzen taldea eta txistulari taldea. Antzerki taldea sortzez da, Deban, euskal komunitatearen arnagune, euskara eta euskaldunon elikagai izatea baitu xede hasiera hasieratik. Beste bietan ere, hausnarketa gehiagorekin edo gutxiagorekin, kontzienteki edo inkontzienteki, euskaraz bizi dira. Euskara hegemonikoa da. Euskararentzat arnagune edo berogailu direla esan genezake. Ez daude, ordea, Debako kulturagintzaren erdigunean. Ikusgarritasun gutxi (dantzak, akaso, zerbait gehiago) eta beste talde batzuekin alderatuz gero, prestigio gutxiago daukate.

***Euskaldunok
kultura propio
bat garatu dugun
heinean, esan
genezake,
artearen
espresibide
guztietan
badirela geure-
geureak diren
ezaugarriak,
egiteko moduak,
ulertzeko
manerak,... eta
horien bitartez
ideia eta balio
konkretu batzuk
transmititzen
direla.***

Kultur transmisioan izan dugun etenari erremedioa jartzen hasteko, jakintza horren transmisioaz arduratuko den kide bat izendatzea izan daiteke hurrengo urratsa eta arduradun horiei beharrezko prestakuntza eskaintzea ondorengo: formaziorako eta hausnarketarako lekuak eratuz, bitartekoak aztertuz, internetak ematen dituen aukerak baliatuz, foroak edo bilguneak antolatuz...

Eta utziguzue, hemen, parentesitxo bat egiten. Konturatu gaitzen. Antzerkia alde batera lagaz gero, beste biak euskal tradizioari edo folkloreari lotutako jarduerak dira biak. Eta “tradizioa”, “folklorea” gehiegi gustatzen ez zaizkigun hitzak ez ote diren, horixe gure zalantza. Zaharkitua, estatikoa... moduko ideiekin lotzen ez ote ditugun, moderotasunarekin eta irekitasunarekin kontrajarriak bezala. Eta horrek guztiak, bigarren mailakotzat kontsideratzea ez ote garamatzen. Euskal kulturak, gainera, prekarietatean iraun behar izan du eta edozein baldintzatan irautera ohituak gaude. Ez da, beraz, erraza beste kultur adierazpideek dituzten eskaerak egiten hasiz gero (ekonomikoak, azpiegiturazkoak...) erantzun baikor eta ulerkorrik topatzea. Garrantzitsua litzateke geure-geureak ditugun kultur adierazpideak balioestea eta, gizartearen aldaketetara irekita, tradizioak berritzen joatea nahiz eta askotan ez den erraza oreka egokia topatzea.

Euskal kulturaren gaineko aipuren bat edo beste ere jaso dugu lan honetan; bandarako euskal obra edo piezen kalitatea eskasa dela dion iritziren bat. Kalitate falta izan daiteke kantitatea ere ez delako behar adinakoa, seguru asko. Nolanahi ere, kalitatea, norik eta zeren arabera neurtzen den erlatiboa da, guk uste. Aipuak agerian jartzen du, ordea, kultur eredu konkretu baten aldeko apustua: nahiago maila altuko edo eliteko emanaldiak egin (horrek gure kultura alboratzea badakar ere), maila apalagokoak (kaleko ekimenetarako ondo egokiak izan daitezkeenak, adibidez) egitea baino. Helburuen eta jarduera motaren arabera euskal kulturak edozein jardueratan tokia izan dezakeela ez daukagu, guk geuk, inolako zalantzarik.

Nolanahi ere den, geurera etorri, euskara eta euskal komunitatea euren jardueraren erdigunean jarri duten taldeak, direnak direla ere, zentzura ekartzea komeni zaigu, horiek prestigiatzea, ikusgarri egitea eta, besteenera zabaldua, produktu original, moderno eta bizigarriak sortzea.

Bi hizkuntzetan jarduten duten gainerako kultur adierazpideetan, ordea, salbuespenak salbuespen, gaztelania bihurtu da hegemoniko: erdaraz egiten da normalean eta, euskara, politikoki zuzena den neurrian erabiltzen da (kartelak egiterakoan, liburuak plazaratzerakoan, programazioan...). Hori da Debako talde gehienek kasua.

Produktuei edo kalerako elementuei dagokienez, adibidez, atentzioa deitzen digu, asko, nola dagoen errotuta oraindik, euskararekin konprometitua dagoen jendearen aldetik ere, hizkuntzen oreka zaindu eta gauza guztiak elebrietan egin behar diren diskurtsoa. Egoera desorekatua den neurrian, ordea, bi hizkuntzekin berdindu jokatzeak desoreka hori be-

tikotzea dakar. Ahal den tokietan, eta Debako egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta ahal da, ausartago joka daitekeela esango genuke.

Uste dugu sakonean dagoen arazoa honako hau dela: berbazkoak ez diren kultur jardueratan zailagoa da euskal dimentsioaz jabetzea. Produktua (emanaldiak) eta sortze-prozesuak nahasten dira eta, euskalgintzari dagokionez, prestatzen diren jendaurrekoetan euskal “pieza” batzuk sartzearekin nahikoa dela pentsatu izan da orain arte. Gu produktua ez ezik (eta hori oso inportantea da), prozesuaz ere ari gara. Esan nahi baita: musika talde batek musika egingo du (bertakoa, klasikoa, modernoa eta nahi duena) baina musika hori egiteko, euskaraz lan egitea edo gaztelaniaz egitea aukera dezake. Debaren kasuan, esan dugu lehen ere, hiru taldek euskaraz egitea aukeratu dute (gaztelaniaz egitea aukera zezaketen). Beste taldeek ez dute, hausnarketarik egin ez duten neurrian, horren inguruko erabakirik hartu; gizarteko joerak, inertiak, funtzionamendu konkretu batera eraman ditu. Esan bezala, gaztelania da nagusi.

Talde funtzionamenduan pisu handia duen beste faktoreetako bat liderrarena da, zalantzarik gabe. Taldeetan dauden liderrek zer nolako sentsibilizazioa duten, zer nolako erreferentzia kulturalak dituzten, zer nolako aurreiritziak (lehen aipatu dugu baten bat)... sekulako eragina du bai produktuen programazioan eta, baita, nola ez, talde barruko hizkuntza harremanetan ere.

Esan bezala, Debako taldeek ez daukate herriaren ikuspegi orokor eta bateratu bat, helburuak adosteko eta (balia)bideak markatzeko. Kultur taldeek, orokorrean, ez dute euskal kultura eta euskara bera biziberritzeko, prestigiatzeko eta balioan jartzeko daukaten potentzialitateari buruzko kontzientziarik. Ez da, aipatutako taldeetan izan ezik, euskara eta euskal kultura jardueraren erdigunean jartzeari buruzko hausnarketarik egin, kontzienteki erdigunean jartzeak, premia desberdinei erantzutea baitakar.

Zentzu horretan garrantzitsua deritzogu taldeak euskalgintzaren parametro hauetan ere jartzea; lan hau bera kontzientzia hartzen joateko lehen urratsa izan daitekeela uste dugu. Ikusi dugunez, euskal hiztun komunitatearen elikagai izan daitezen, beharrezkoa dute taldeek kultura eta hiztun komunitatearekiko hausnarketa egitea. Kulturgintzaren eraginaren inguruko diskurtso berriak lantzea ezinbestekoa dela esango genuke eta, bide horretan, baliagarriak izan daitezke, nik uste, ekologiak edo genero berdintasunak, parekidetasunak, eskaintzen dizkiguten euskarri eta argumentuak. Kaletar, herri mugimendu, erakunde publiko zein merkatuan mugitzen diren enpresen artean diskurtso horiek zabaldu eta bere egin ditzaten saiatzea behar-beharrezkoa dela iruditzen zaigu.

Ekintzen zurrumbilatik irten eta pentsatzeko, hausnartzeko, konpartitzeko,... momentuak eta espazioak bilatu beharko genituzkeelakoan gaude. Moduetan asmatzea da, behar bada, gakoa.

Euskaldun jendea da, bada, oro har, kultur taldeetan dabilena. Debako batez bestekoa baino euskaldun gehiago dagoen arren, gehienek ez dute euren jardueran euskal/erdal dimentsioa lantzen ari direnaren kontzientziarik.

Aipuak agerian jartzen du, ordea, kultur eredu konkretu baten aldeko apustua: nahiago maila altuko edo eliteko emanaldiak egin (horrek gure kultura alboratzea badakar ere), maila apalagokoak (kaleko ekimenetarako ondo egokiak izan daitezkeenak, adibidez) egitea baino.

4.4 Azpiegitura

Azpiegiturari dagokionez taldeen artean adostasun handiak eta diferentzia nabarmenak daude:

1) Adostasun handi bat: kultur taldeen emanaldi/erakusketetarako baldintza egokiak (akustika, edukiera, hozberoa...) izango lituzkeen aretorik ez dago; eta beharrezkoa da. Ez gara kultur etxe handi batez hitz egiten ari; areto batez baizik. Kalea eta frontoia baliatzen dituzte taldeek euren lanak erakusteko. Kalea landu eta biziarazi behar den espazioa da, dudarik gabe. Euskal Herrian, ordea, badakigu, eguraldiak asko baldintza ditzake kaleko erakustaldiak. Zenbait jarduera, gainera (antzerkia, adibidez) zailak dira kalean. Sobera justifikatua dago areto baten beharra taldeen emanaldietarako ez ezik, Udalak berak antola litzakeen hainbat eta hainbat kultur ekitaldietarako ere: filmak, bertsolariak, errezitaldiak...

2) Diferentziak entseguetarako gelen banaketan, horien mantentzean, erositasunetan... atzeman dira. Diagnostikoan taldeen arteko harremanak bideratzea ona litzatekeela jaso den arren, ez da azpiegiturak konpartitzearen filosofia gailendu eta talde bakoitza bere gelan aritzen da. Baina hori bera ere, jarrera egokiarekin eginez gero behintzat, taldeen harremanak estutzeko bide izan zitekeen.

4.5 Diru kontuak

Kultura Sailaren diru kontuak aztertzerakoan kultura adierazpen desberdinak sei eremutan kokatu ditugu zertan gastatzen den jakiteko: Musika (musika eskola eta musika taldeak bilduko lituzke), Festak (herriko guztiak), Literatura (liburutegia eta Tene Mujika beka), Arte plastikoak (arte eskola eta pintura elkarteak), Dantza (dantza eskola, euskal dantza taldea eta erraldoi eta buruhandiak) eta Antzerkia.

1) Potoloenari helduko diogu hasieratik. Zertan gastatzen da. Kulturako aurrekontuaren zatirik handiena musikak eramaten du (%35 inguru); beste edozein eremuren gainetik ageri da alde dezentearekin. Bigarren tokian leudeke festak eta literatura (%20-25aren bueltan), baina horiek ez dira diagnostiko honetako aztergai; beraz, alde batera lagako ditugu. Baina horietatik gainerakoetara dagoen jauzia handia da oso: Arte plastikoetan, %7. Dantzan, %3 inguru. Eta antzerkian, kasurik onean, %2. Hori da errealitatea. Ikaragarritzko desoreka.

Musikaren eremuan zatirik handiena musika eskolak darama. Eta musika eskola beharrezkoa da herriko musika taldeak elikatzeke. Eta herri bakoitzak musika eskola bat izan behar du. Eta instrumentu guztiak

irakatsi behar dira. Eta horretarako irakasle espezialistak kontratatu behar dira. Eta... Ez da erraza printzipioz tratamendu bera mereziko luketen adierazpen artistikoen artean horrelako diferentziak esplikatzea: %35-%2. Eman dezagun dirutan: 249.368 € - 13.844 €. Mereziko luke, agian, musika eskolaren planteamenduari buelta batzuk ematea (beste antolaketa bat posible ote den, instrumentu bakoitzerako irakasle bana eduki behar ote den, denak hain “profesionala” izan behar ote duen, bolutariotzak paperik joka ote dezakeen, nolakoa eta zenbaterainokoa...). Adibidez, musika formaziorako eskualdekako planteamendura jo behar ote den, herriko irakasleei instrumentu desberdinak irakats ditzaten oinarrizko formazioa eskaini behar ote zaien... Ez da denboran atzera asko egin beharrik, ikusteko, orain dela 50 bat urte, pertsona bakarrak (banda zuzendariak, gehienetan) irakasten zituela instrumentu guztiak eta, hala ere, herrirako instrumentu talde egoki askoak eratzen zirela.

Badakigu ur handitan sartzeko arriskua dugula hemendik joz gero. Baina perspektiba hori edukitzea beharrezkoa iruditzen zaigu, aurrera begira, behar handienak non dauden ikus dezagun. Krisi garai hauetan kultur politikak birpentsatu egin behar dira eta ideia berriak landu horrelako egoeretan aurrera egiteko.

Sei eremu ditugu: musika, festak, literatura, arte plastikoak, dantza eta antzerkia. Badakigu sinplistegia dela esatea berdin jokatu beharko litzatekeela guztiekin eta, beraz, eremu bakoitzari %15-17 dagokiola. Baina kopuru horiek doitu beharko liratekeela begi bistakoa da guretzat.

Euskalgintzaren ikuspegitik, gainera, euskarazko berbazko jarduerak eta balio sinbolikoa dutenek izan beharko lukete lehentasuna eta, gurean, alderantziz gertatzen da. Horiexek dira, hain zuzen, gutxien bultzatzen direnak.

Kultura taldeei urteen joanean ematen zaizkien diru laguntzei buruz, berriz, azken hamar bat urteetako diru laguntzak aztertuta, zilegi litzateke esatea, diruak “segidismo” piska edo puska batekin banatzen direla, urteak joan urteak etorri, ez baita aldaketa nabarmenik egon. Horrek erakusten du, guk uste, kultura politika hausnarturik inoiz egon denik ukatu gabe ere, ez dela politika hori gehiegi berraztertu izan, bestela, beharrak eta helburuak eta ikuspegiak aldatzen diren heinean (eta aldatzen doaz), aldaketa horiek diru laguntza politikan ere isla izango zuketena.

2) Taldeak 3 multzotan bereiz genitzake: amateur-profesionalak (bereizteko modu bat da), amateur diru laguntzadunak eta amateur-auto-gestionatzaileak. Lehendabiziko multzoan taldekideak bolondresak dira (ez dute kobratzen) baina zuzendariari, gutxi-asko, ordaindu egiten zaio.

Nolanahi ere den euskara eta euskal komunitatea euren jardueraren erdigunean jarri duten taldeak, direnak direla ere, zentrora ekartzea komeni zaigu, horiek prestigioatzea, ikusgarri egitea eta, besteenera zabaldua, produktu original, moderno eta bizigarriak sortzea.

Atentzioa deitzen digu, asko, nola dagoen errotuta oraindik, euskararekin konprometitua dagoen jendearen aldetik ere, hizkuntzen oreka zaindu eta gauza guztiak elebrietan egin behar diren diskurtsoa.

Egoera desorekatua den neurrian, ordea, bi hizkuntzekin berdin jokatzeko desoreka hori betikotzea dakar.

Bigarrenean jarduera burutzeko diru laguntza bat jasotzen du taldeak baina kide guztiak bolondres ari dira. Hirugarrenean taldeek eurek gestioan dute, osorik, euren jarduna.

Ikus ditzagun taldeek jasotzen dituzten laguntzak:

2010. URTEA	DIRU LAGUNTZA	ZUZENDARIAREN DEDIKAZIOA
	<i>Zuzenean taldeari</i>	<i>Lanjardunaren %</i>
Banda	24000	%47
Txistulariak	4500	%6
Abesbatza	3000	%21
Euskal dantza	3000	%6*
Erraldoi eta buruhandiak	2000	0
Pintura	0	0
Antzerkia	0	0

* Dantza taldearen kasuan, zuzendariarentzat bideratutako diru kopurua taldean geratzen da; ez du inork kobratzen.

Kopuru hutsetatik ondorio erabatekoak ateratzea ezinezkoa da, ez baitugu taldeek dituzten gastuen gaineko informazio osaturik eskuratu. Hala ere kopuru horiek zerbait adierazten dutela esango genuke, alde handia baitago banda eta beste talde guztien artean. Bandaren prestigioaren adierazle eta Debako kulturgintzaren erdigunean kokatuta dagoenaren seinale direla esatera ausartuko ginatke. Baina zerk ematen dio prestigio hori? Zergatik dago erdigunean eta zergatik bihurtu da erreferente herrian?

Intuiziotik bada ere, bandaren jardunaren zenbait ezaugarri aipatu nahiko genituzke, prestigio eta kokapen hori ulertzeko baliagarri izan daitezkeelakoan:

— Jardueraren ikusgarritasuna bera: kalera ateratzen den bakoitzeko (izan kontzertu baterako, izan kale animaziorako), herri osoan entzungo/sentituko da.

— Kalitatea: sariak lortu ditu eta kanpoko zenbait jaialdietan (jazzaldia, adibidez) gonbidatu modura aritzea lortu du. Horrek miresmena sortzen du.

— Emanaldien maiztasuna eta aniztasuna/Oreka: txistulari taldearekin batera, herrian emanaldi gehien egiten duen taldea da. Gainera, emanaldi serioak eta informalekoak orekatzen jakin du: era askotako kontzertuak (musika klasikoa ez ezik, modernotasuna ematen dioten jazz, swing... kontzertuak), kale girotzeko emanaldiekin.

— Kaleko emanaldietan jaiaren, festaren, umore onaren, ondo pasatzearen, pozaren inguruan (hau da, arazoak alde batera utzi eta itzuri egiteko) herritarrak biltzeko duen gaitasuna. Eta beste hiru faktoreak eragin handikoak izanagatik ere, gaude, azken hau dela taldea gehien preziatzeko arrazoia. Hammelingo xirulariak nola, halaxe jartzen baititu herritarrak kantuan eta dantzan eurei segika, batuta.

Beste taldeek ez dituzte, seguru asko, faktore horiek guztiak bandak bezain ondo uztartzen. Kasu batzuetan ezinezkoa delako (nekez lortu ahal izango du txistulari talde batek, abesbatza batek edo antzerki talde batek, esaterako, bandak ateratze hutsarekin lortzen dituen ikusgarritasun eta presentzia). Maiztasunari dagokionez ere, talde guztiak ezin dute berdin funtzionatu: urte betean ondutako antzerki obra bat behin emanda, herrian bertan berriro emateak ez luke zentzu gehiegirik, adibidez. Taldeen arabera, presentzia hori bermatzeko beste modu eta bide batzuk pentsatu beharko lirateke, beraz. Nolanahi ere den, kokapen berriak eskuratzeko kontuan hartu beharreko faktoreak direla esango genuke.

Baina diru laguntzetara itzuliz. Dirutan desberdintasunak nabarmenak dira, ikusi dugunez. Emanaldi kopuruaren arabera ematen diren, aipatutako prestigioaren arabera... Ez dago oso argi. Diruak emanaldi kopuruaren arabera banatzea logikoa izan daiteke ikuspegi merkantilista batetik. Herrigintzaren ikuspegitik, ordea, ikuspegi pobrea da gure ustez. Jarduerak desberdinak diren neurrian, desberdin baloratu beharko liratekeelako; kultur adierazpide horietako bakoitzak, bakarra eta originala den neurrian, herriari ahal beste ekarpen egiten diola sinetsi beharko genukeelako. Emaitzak baloratu beharrekoak direla uste dugun arren, neurrian egin behar dela iruditzen zaigu guri. Esan nahi baita emaitzak baino prozesuak baloratzen ikasi behar genukeela. Herriko kultur talde guzti-guztiak hazi beretik sortu baitira: jarduera batekiko zaletasunetik. Eta zaletasun horrekin gozatzeko eta herritarrei eskaintzeko lanean aritzen baitira. Denak berdin berdin. Ahalegin eta esfortzuz. Eta gauzen balioa dirutan neurtzen den gizarte honetan, kontuzkoak dira egiten diren diferentziak, batzuk euren lana gutxietsia sentitu bailezakete.

Autogestioaren, boluntarioritzaren eta amateurismoaren aldeko apustua egin dutenen ahalegin eta esfortzua publikoki baloratzeko, errekonozitzeko eta jendarteratzeko lana egin beharrekoa dela uste dugu, balio modura berreskuratu beharreko zatitatu ditugu eta. Hautu hori egin duten taldeetakoren batek benetako zailtasunak izan ditzake aurrera

Berbazkoak ez diren kultur jardueratan zailagoa da euskal dimentsioaz jabetzea. Produktua (emanaldiak) eta sortze-prozesuak nahasten dira eta, euskalgintzari dagokionez, prestatzen diren jendaurrekoetan euskal "pieza" batzuk sartzearekin nahikoa dela pentsatu izan da orain arte.

Horrek erakusten du, guk uste, kultura politika hausnarturik inoiz egon denik ukatu gabe ere, ez dela politika hori gehiegi berraztertu izan, bestela, beharrak eta helburuak eta ikuspegiak aldatzen diren heinean (eta aldatzen doaz), aldaketa horiek diru laguntza politikan ere isla izango zuketena-eta.

egiteko, amateurak izanik, emanaldietatik diru sarrerak lortzea gero eta zailagoa da eta. Konpentsazio moduak era askotakoak izan litezke eta Udalak badu horretan zer eginik, zuzeneko diru laguntzez gain, taldeak laguntzeko, babesteko, bultzatzeko... hamaika modu dago eta.

Emanaldien nolakotasunaz: Hitzarmentetik eta taldeek emandako datuetatik ondoriozta daitekeenez, talde batzuen joerak ikuskizunen/entzunaldien aldera egin du. Baina "gizartean txertatutako kultura gehiegi espezializatzen bada, "profesionalizatzeko" bidean bada (edo irudi hori transmititzen badu, gehituko genioke guk), gainerakoak urrutiratzeko arriskua dago" (Xabier Aierdi. Euskal Kulturaren transmisioa. Eskoria-tza, 2010-2011). Deban daukagun potentzial guztia jaiaren espazio sinbolikoarekin lotzea eta, beraz, bestelako jarduera "serioagoekin" orekatzea eta haiei besteko garrantzia ematea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu kultur eragile guztiek osatzen duten sare horrek bere benetako funtzioa egin dezan: herritarrak bildu, harremanetan jarri, kultur identitate komuna osatu.

4.6 Harremanak

Kultur taldeen artean harreman gutxi dagoela konstatatu dugu. Harreman horiek puntualak dira; talde batek egin asmo duen zerbaitetan beste baten beharra daukan heinean gertatzen dira. Bakoitza bere aldetik dabil, beraz. Ez daukate beste kultur taldeek eskaintzen dituzten emanaldietara ohituraz joateko joerarik. Kultur komunitate sena falta dela esango genuke; ez dira, oro har, kultur gile sentitzen.

Berdin esango genuke Udalari buruz ere. Ez da udal ordezkari gehiegi ikusten herriko taldeek egiten dituzten emanaldietan eta, diruak gora behera, bertan izateak aitortza bat, balioeste bat suposatzen duela esango genuke eta, beraz, egin beharrekoa dela.

Bestalde, Udalak edo beste eragileren batek ekitaldiren batean parte hartzeko eskaera egiten duenean, kultur taldeen erantzuna aparta da. Beti agertu dira prest horietan parte hartzeko. Baina proposamen irekiak diren arren kanpotik egindako eskaera modura hartzen dira eta ez dira, normalean, hausnartzen: proposamena egokia den, taldearen filosofiarekin bat datorren... ez da zentzu horretan interakziorik lortzen eta, ondorioz, ezta helburuekin bat egitea ere. Arrazoia da bakoitzak nahikoa lan duela berea aurrera ateratzen eta ez duela besteen burujanen gainean go-goeta egiteko denborarik hartzen. Proposatutakoa egin egiten da eta kito.

Zentzu horretan udal langileen eta herriko kultur eragileen arteko harremanak birpentsatu eta birplanteatu behar direla uste dugu. Harreman zuzen eta hurbilagoaren alde egingo genuke guk.

4.7 Komunikazioa-koordinazioa-teknologia berriak

Debako kultur taldeen arteko komunikazioa ez da nahi eta behar adinako. Hobeto esan, ez dago beste eragileekin (ez gainerako taldeekin ez Udalarekin ere) informazioa elkartrukatzeko modu sistematizaturik ez zentralizaturik. Informazioa ematerakoan bakoitzak bere bideak erabiltzen ditu (prentsa, kartelak, web orria...). Ondorioz, koordinazio falta ikaragarria dago.

Gaur egun teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideekin ez da zaila denok denon berri edukitzea. Horretarako modu asko egon daitezke, sinpleagoak edo landuagoak: posta elektronikoa kultur taldeen sarea eratzea, kultur taldeen blog bat Udalaren web orrian zintzilikatzea, kultur talde guztiak batuko dituen web orri bat sortzea...

Ohitura aldaketan dago gakoa. Denon artean bidea adostu eta bide horri ekitean.

4.8 Kultur taldeen koordinakundea-kultur politika

Filosofikoki kultur taldeen elkarte bat komenigarria dela iritzi arren, ez da sumatzen taldeen aldetik horrelako elkarte bati ekiteko behar adinako indarririk (denbora falta izan da gehienek emandako arrazoia). Euren inplikaziorik gabe, beraz, zail ikusten dugu horrelako elkarte bat martxan jartzea, nahiz eta desiragarria litzatekeela uste dugun.

Hala ere, eratzekotan, komenigarria irudituko litzaiguke talde guztiak bilduko lituzkeen elkarte bat eratzea, euskara eta euskal kultura hasieratik erdigunean izango dituen, euskararen aldeko diskurtsoa behar bezala landuko duena eta kulturak duen dimentsio linguistikoa bere lekuan jarriko duena.

Eta amaitzeko, analisi-unitate bakoitzean jasotakoa xehatuta, hona, buruan jira-bueltaka geratu zaizkigun kontuak:

- 1) Diagnostiko hau Debako kultur panoramaren zati bat besterik ez da. Bidean geratu zaizkigu, aurreragorako, herriko hiru kultur elkarte zabalenak. Interesgarria izango da haiek esan beharrekoa jasotzea.
- 2) Debako kultur talde gehienetan kultura eta hizkuntza bereizita ulertzen dira, kultura hizkuntzaren gainetik jarritz. Kulturaren dimentsio linguistikoa lantzea eta ikusaraztea ezinbestekoa da eta, beraz, herritarrentzako aproposak izango diren argumentazioak eta diskurtsoa eraiki beharra dago, eragile guztien arteko bisio adostu bat lortu nahi bada.
- 3) Euskal kulturgintzaren begirada instituzional eta politikoa, Sorguneak ikertegiak proposatutakoa, lantzerantz ez gara iritsi. "Euskal

***Emaitzak
baloratu
beharrekoak
direla uste dugun
arren, neurrian
egin behar dela
iruditzen zaigu
guri. Esan nahi
baita emaitzak
baino prozesuak
baloratzen ikasi
behar genukeela.
Herriko kultur
talde guzti-
guztiak hazi
beretik sortu
baitira: jarduera
batekiko
zaletasunetik.***

Gaur egun teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideekin ez da zaila denok denon berri edukitzea. Horretarako modu asko egon daitezke, sinpleagoak edo landuagoak: posta elektronikoan kultur taldeen sarea eratzea, kultur taldeen blog bat Udalaren web orrian zintzilikatzea, kultur talde guztiak batuko dituen web orri bat sortzea...

kulturgintzaren estrategiak garatzeko oinarriak” txostenaren edukia eragileen artean sozializatzea behar-beharrezkoa da. Horrek, kultur politika publikoa birpentsatzeko eta birbideratzeko aukerak zabal ditzakeelako euskalgintzaren mesedetan.

4) Kultur taldeen koordinakundea ideia modura interesgarria izanik ere, ez da momentu honetan posible ikusi ditugun mugak ikusita. Proposamen desberdinak landuko dituen bideragarritasun txosten bat primeran etorriko litzaiguke. ●

OHARRA

1. Lan hau egiterakoan, beste guztiekin bezalaxe jarri ginen hirurekin harremanetan baina ez dugu eurekin elkarrizketa ganorazkorik egiterik izan. Gaztetxearen kasuan ez dugu datuen fitxa ere eskuratzetik lortu; Kultur Elkartean eta Zuhatza euskara elkartearen kasuan fitxa badaukagu, elkarrizketarik ez. Kultur Elkartetik jakinarazi digute, hain zuzen, Gipuzkoako antzeko beste elkarte batzuekin batera, elkarrizketa-gidoian jasotako gaien inguruko hausnarketa prozesu batean sartuta daudela eta oraindik goizegi egiten zaiela horien inguruan ikuspegi bateratu bat ematea. Prozesu hori amaitzean (urtea joango zaie horretan) hitz egitekotan geratu gara. Zuhatza elkartearen kasuan ere, oso azalezetik komentatu dira gaiak; aurrerago sakontzekotan geratu gara.